4. Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio eta udalaren webgunean argitaratuko da (https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/). Ebazpenaren argitaratze eguna izango da kontuan hartuko dena epeak zenbatzeko. Argitaratze egunean bertan, Udalak abisua igorriko die, posta elektronikoz, eskatzaile guztiei. Oinarri espezifikoek ezarri dezakete pertsona fisikoei jakinarazpenak paperez eta eskatzaileak horretarako adierazitako helbide fisikora igortzeko beharra.	4. La resolución pone fin a la vía administrativa y será publicada en la página web del Ayuntamiento (https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/). El día de su publicación será el determinante a efectos del cómputo de plazos. El mismo día de la publicación, el Ayuntamiento enviará un aviso por correo electrónico a todas las personas o entidades solicitantes. Las bases específicas podrán determinar que las notificaciones a personas físicas se realicen en papel y a la dirección física que las solicitantes hayan designado a tal efecto.
5. Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epe hori ebazpen zehatza jakinarazi gabe igarotakoan, pertsona edo entitate eskatzaileek ezetsitzat jo ahal izango dituzte bere dirulaguntzarako eskaerak.	5. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses a partir de la finalización del plazo para presentación de solicitudes. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las personas o entidades solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

HAMAIKAGARRENA.- Publizitatea	**DECIMOPRIMERA.- Publicidad.**
Emandako dirulaguntzen zerrenda, erakunde edo pertsona onuradunak eta beren zenbatekoak adierazita, argitaratuko da Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) delakoan (https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index), Udalaren web orrian eta Udalaren web orrian (https://errenteria.eus/zu/dirulaguntzak/).	La relación de subvenciones concedidas, con indicación de las entidades o personas beneficiarias y sus cuantías, serán publicadas en la Base de Datos Nacional de Subvenciones -BDNS- (https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/es/index), la página web del Ayuntamiento Errenteria y la página web municipal (https://errenteria.eus/es/zu/subvenciones/).
HAMABIGARRENA.- Dirulaguntzaren onuradunaren betebeharrak.	**DECIMOSEGUNDA.- Obligaciones de las beneficiarias de subvenciones.**
Pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak, hauek dira:	Son obligaciones de la entidad o persona beneficiaria, las siguientes:
a) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera gauzatzea edo diru-laguntzak emateko oinarri den portaera hartzea, i) atalean ezarritakoa alde batera utzi gabe.	a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones, sin perjuicio de lo establecido en el apartado i).
b) Udalaren edo, hala badagokio, entitate laguntzailearen aurrean eskakizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea, hala nola jarduera gauzatzea, eta dirulaguntzaren emakidak edo gozamenak zehazten duten xedea betetzea.	b) Justificar ante el Ayuntamiento o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.
c) Diruz lagundutako jarduera garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortzea.	c) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.
d) Udalak egin beharreko egiaztapen-jardunen mende jarri eta laguntzea, indarrean den araudiaren baldintzetan, hala nola kontrol-organoek egin ditzaketen finantzako beste egiaztapen- eta kontrol-jardunen mende aurreko jardunetan eskatzen zaion informazio guztia ekartzea.	d) Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.
e) Emakidarako ebazpen-proposamena egin aurretik, eta horrela dagokionean, ordainketa bakoitza egin	e) Acreditar con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, y en su

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

aurretik, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Errenteriako Udalarenak eta bere organismo autonomoenak egunean dituela egiaztatu.	caso, antes de la realización de cada uno de los pagos, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y del Ayuntamiento de Errenteria y sus organismos autónomos.
Udalak zuzenean bilduko ditu aipatutako alderdiak (edo dirulaguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifikoetan eska daitezkeen beste batzuk) egiaztatzeko behar dituen eta sektore publikoko erakundeen esku dauden datuak, eskatzaileak berariaz aurka egiten ez badu behintzat. Kasu horretan, egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.	El Ayuntamiento recabará directamente los datos en poder en las entidades del sector público que necesite para acreditar los extremos mencionados u otros que puedan exigirse en las bases específicas de cada línea de subvención, salvo que la solicitante se oponga expresamente. En ese caso, deberá aportar la documentación acreditativa.
Udalaren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko, Udalak berak emango du ziurtagiria, espedienteari erantsiko zaiona.	Para la acreditación de la obligación de estar al corriente de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Errenteria, la propia entidad local emitirá certificación, la cual se incorporará al expediente.
Eskatzaileek, dirulaguntza eskatzean, ebazpen proposamenaren unean edo ordainketa bat egin aurretik ez badauzkate egunean udal zerga biltegiari, Foru Ogasunari edota Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak, 10 egun emango zaizkie betekizun horretan egunean daudela egiaztatzeko.	A las solicitantes que en el momento de la solicitud de subvención, de dictarse la propuesta de resolución o de realizarse un pago no se encuentren al corriente del cumplimiento de sus obligaciones con la recaudación municipal, la Hacienda Foral o la Seguridad Social, se les concederá un plazo de 10 días para acreditar estar al corriente en dicho cumplimiento.
f) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako dokumentuak edukitzea, kasu bakoitzean behar bezala ikuskatutako dokumentuak onuradunari aplikatzekoa den merkataritza eta sektore legeriak eskatutako baldintzetan, hala nola kasu bakoitzean merkataritzako eta sektoreko legeriak exiji ditzakeen kontabilitate-egoerako orriak eta erregistro zehatzak, eta dirulaguntzen oinarri espezifikoek exiji ditzaketen kontabilitate-egoerako orriak eta erregistro zehatzak konprobatze eta kontrol eskumenak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko.	f) Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases específicas de las subvenciones con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.
g) Jasotako fondoen aplikazioa justifikatzeko	g) Conservar los documentos justificativos de la

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, konprobatze eta kontrol jardunen xede izan daitezkeelako, lau urteko epean zehar.	aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años.
h) Organo emaileari jakinaraztea, hala badagokio, edozein Administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, nazional zein nazioartekotik, diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana.	h) Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.
i) Jakinaraztea dirulaguntzaren emakidarako kontuan izan den edozein egoera objektibo zein subjektiboren aldaketa.	i) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
Gertatu eta aurreikusi ezin den eta aldeentzat saihestezina den egoeraren bat (pandemia edo antzekoa) gertatzen bada, aurreikusitako jardueraren bat egitea eragozten badu, Udalari proposatu ahal izango dio hura aldatzea edo beste batekin ordeztea. Bestela, gastuak Udalak ez du diruz lagunduko.	Si alguna situación sobrevenida y totalmente imprevisible e inevitable para las partes (pandemia o similares) impide la realización de alguna de las actividades previstas, podrá proponer al Ayuntamiento su modificación o sustitución por otra. En caso contrario, los gastos que genere su realización no serán subvencionados por el Ayuntamiento.
Aurreko paragrafoan ezarritako aukerak ez du inola ere handituko dirulaguntzaren onuradunari ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa.	La posibilidad establecida en el párrafo anterior en ningún caso supondrá la ampliación de la cuantía máxima a abonar a la beneficiaria de la subvención.
j) Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzan aurreikusitako kasuetan jasotako fondoak itzultzea.	j) Reintegrar los fondos percibidos en los supuestos previstos en la ordenanza municipal reguladora de las subvenciones.
k) Diruz lagundutako jardueraren hedapen-ekintzetan, ”Errenteriako Udalaren laguntzarekin” esaldia txertatuko da. Baita Udalaren armarria, hedabidea idatzietan, euskarri elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan. Oinarri zehatzek beste esaldi edo logotipo bat txertatzeko beharra jaso dezakete. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean.	k) En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá insertarse la frase “Con la colaboración del Ayuntamiento de Errenteria” añadiendo, en caso de difusión escrita o en medios electrónicos o audiovisuales, el escudo de la Villa, salvo que las bases específicas contemplen la publicación de otro logotipo o frase. Este requisito se cumplirá tanto si el Ayuntamiento de Errenteria fuera único colaborador, como en el caso de que

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

	compartiera este patrocinio con diferentes colaboradores.
l) Eduki politiko edo errebindikazioko elementurik ez sartzea, edozein joeratakoa delarik, diruz lagundutako jarduerarekin zerikusi duten argitaratutako idazki, iragarki, ohar, propaganda (ahozkoa nahiz idatzizkoa izan) eta bestelako komunikazioetan. Era berean, pankartarik edo bestelako elementurik ez da erakutsiko diruz lagundutako jardueraren garapenean zehar.	l) No incluir elementos de contenido político o reivindicativo, de cualquier signo, en los escritos, anuncios, avisos, propaganda (bien sea oral o escrita) y demás comunicaciones que se publiquen en relación con la actividad subvencionada, ni proceder a la exhibición de pancartas u otros elementos durante el desarrollo de la actividad subvencionada.
m) Jardueraren garapenean zehar pertsonaren oinarrizko eskubideekiko behar den errespetua erakustea eta indarrean diren legeak errespetatzea.	m) En el ejercicio de la actividad se observará el debido respeto a los derechos fundamentales de la persona y se respetará la legalidad vigente.
n) Hizkuntza ariloko eginkizunak betetzea, hain zuzen ere, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzkoa denak ezarritakoa, baita garapen xedapenetan ezarritakoa ere.	n) Cumplir con las obligaciones en materia lingüística, establecidas por la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, de Normalización del uso del Euskera y disposiciones de desarrollo.
ñ) Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, berdintasunaren arloan ezarritako betebeharrak betetzea.	ñ) Cumplir con las obligaciones en materia de igualdad establecidas por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
o) Aplikatu beharreko indarrean dagoen arautegia errespetatzea.	o) Respetar cuanta normativa vigente resulte de aplicación.
HAMAHIRUGARRENA.- Dirulaguntzen itzulketa eta zehapen araubidea	**DECIMOTERCERA.- Reintegro y régimen sancionador**
Itzulketa.	Reintegro.
1. Jasotako diru-kopuruak itzuli eta berandutze-interesak exijituko dira dirulaguntza ordaindu denetik, itzulketaren jatorria adosten den datara arte, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak (37. artikuluan) eta haren garapenerako erregelamenduak aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, baita oinarri orokor hauetan edota deialdian jasotakoa ez betetze	1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la subvención, hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 37 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones y su

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

kasuetan ere.	Reglamento de desarrollo, así como por incumplimiento de lo dispuesto en estas bases generales o en la convocatoria.
2. Itzuli beharreko diru-kopuruak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta hortaz, premiamendu-bidez exijitu ahal izango dira itzulketa egiten ez bada erabakitako epeetan.	2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público, por lo que podrán ser exigidas por la vía de apremio si el reintegro no se efectúa en los plazos que se determinen.
3. Kudeaketa, ikuskapen edo kontrol funtzioetan jasotako dirulaguntza modu desegokian lortu, gozatu edo bideratu dela zantzurik izanez gero, espedientea jasota geratuko dira zantzu horiek beharrezko kautelazko neurriak adostu ahalko dira.	3. Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, inspección o control se deduzcan indicios de incorrecta obtención, disfrute o destino de la subvención percibida, se dejará constancia en el expediente de tales indicios y se podrán acordar las medidas cautelares precisas.
Dirulaguntza emateko erabakiak kontuan hartuko du oinarri arautzaile honen aurreko atalean adierazirikoa.	En la resolución de concesión de la subvención se deberá incluir lo señalado en el apartado anterior de esta base reguladora.
Zehapen araubidea	Régimen sancionador
Dirulaguntzen alorrean arau-hauste administratiboak dira diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 56, 57 eta 58 artikuluetan tipifikatutako ekintzak, eta ez-egiteak, eta zabarkeria hutsa izanda ere zehagarriak izango dira.	Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en los artículos 56, 57 y 58 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones, y serán sancionables incluso a título de simple negligencia.
Dirulaguntzen baldintzak ez betetzeak kasu bakoitzean dagozkion erantzukizunak sortuko ditu, esparru hauetan.	El incumplimiento de las condiciones de la subvención originará las responsabilidades que en cada caso correspondan.
HAMALAUGARRENA.- Hizkuntza eskubideak bermatzeko betebeharrak	**DECIMOCUARTA.- Obligaciones para garantizar los derechos lingüísticos**
Dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.	La entidad beneficiaria de la subvención en las comunicaciones llevadas a cabo en las actuaciones objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices:
Idatziari dagokionez:	En lo que respecta a las comunicaciones escritas:

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

a) Hizkuntza paisaia:	a) Paisaje lingüístico:
Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.	Los rótulos, avisos, anuncios, tarjetas, publicidad y resto de comunicaciones se realizarán mediante pictogramas.
Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak elebietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.	Cuando no pueda utilizarse un pictograma, los mensajes se redactarán en los dos idiomas, priorizando la versión en euskera (posición del texto, mayor tamaño de letra, negrilla). Previamente se consensuarán con el Ayuntamiento.
Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.	Los programas, anuncios, y avisos de las actividades objeto de la subvención que se publiquen y pongan a disposición de la ciudadanía se redactarán como mínimo en los dos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera.
b) Harremanak Administrazioarekin:	b) Relación con la Administración:
Dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.	En el momento de la tramitación de la solicitud de subvención se les solicitará que hagan el esfuerzo de mantener en euskera la relación oral y escrita con el Ayuntamiento, sin olvidar que la Ley 2/2016, de 7 de abril y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, reconocen a la ciudadanía el derecho de comunicarse con la administración en los dos idiomas oficiales.
<u>Ahozkoari dagokionez:</u>	<u>En lo que respecta a las comunicaciones orales:</u>
Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.	Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos que quieran comunicarse en euskera, se priorizará que quienes participen en las actividades que se realicen con la ciudadanía en general, y en particular en las que se realicen con las niñas y niños, tengan capacidad lingüística necesaria para comunicarse en los dos idiomas oficiales.
Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo	La propaganda, avisos, publicidad etc. que se realicen por altavoces se harán en los dos idiomas oficiales, dando en ese caso prioridad al euskera. Cuando las características de la actividad o de las

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.	personas que participen en ella así lo requieran se priorizará el uso del euskera.
Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.	Los mensajes emitidos mediante megafonía durante los actos concretos, así como la música y canciones, deberán cumplir esa condición.
Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.	Cuando se organice alguna conferencia o similar y la persona ponente no sepa euskera, se solicitará la presencia de una persona ayudante vascoparlante, al objeto de que se respeten los derechos de las personas que deseen utilizar el euskera.
HAMABOSGARRENA.- Emakume eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak.	**DECIMOQUINTA.- Obligaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres.**
- 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena, eta 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.	- Cumplir los principios y obligaciones establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, eta bi hizkuntza ofizialetan, ahoz zein idatziz, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.	- Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.
Ahal den neurrian, diru-laguntzaren helburuak bete direla justifikatzen duen memoriarekin batera, erakunde onuradunak honako hauek aurkeztu beharko ditu, sexuaren arabera banakatuta: emandako zerbitzuaren azken erabiltzaileak eta erakundearen eta plantillaren titularrak, bai eta diru-laguntzaren xede den zerbitzua	En la medida de lo posible, junto con la memoria justificativa del cumplimiento de los fines de la subvención, la entidad beneficiaria deberá aportar desglosada por sexo de las personas beneficiarias o usuarias finales del servicio prestado y las personas titulares de su entidad y de su plantilla,

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

emateko kontratatu den erakundearen plantilla ere, hala badagokio.	así como de la plantilla de la entidad que se haya contratado, en su caso, para la prestación del servicio objeto de la subvención.
HAMASEIGARRENA.- Ingurumenaren eta klimaren arloko betebeharrak.	**DECIMOSEXTA. - Obligaciones en materia de Medio Ambiente y Clima.**
Dirulaguntzaren erakunde onuradunak, bere egoitzan eta dirulaguntzaren xede diren jardueretan, ingurumen-jarraibide hauek beteko ditu:	La entidad beneficiaria de la subvención en su sede y en las actividades objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices ambientales:
- Hondakinen kudeaketa eta bilketa zatikiak bereizita egin behar dira: ontzi arinak, paper-kartoia, biohondakina, errefusa, beira, hondakin elektronikoak, hondakin toxiko eta arriskutsuak, tamaina handikoak...	- La gestión y recogida de los residuos se debe efectuar separando selectivamente las diferentes fracciones: envases ligeros, papel-cartón, materia orgánica, rechazo, vidrio, residuos electrónicos, residuos tóxicos y peligrosos, voluminosos,….
- Ordu eguzkitsuetan pertsianak eta leihatilak irekitzea, eguzkiaren beroa aprobetxatzeko. Gauez, berriz, hobe da ixtea, barruko beroa gal ez dadin (negua).	- Abrir las persianas y las contraventanas durante las horas soleadas para aprovechar el calor del sol. Durante la noche, en cambio, es mejor cerrarlas para que no se pierda el calor interior (invierno).
- Erradiadoreen gainazalak garbi eduki behar dira. Ez dira inoiz estali behar, ezta beroa transmititzea zailtzen duten altzariak edo oztopoak jarri ere (negua).	- Es necesario mantener limpias las superficies de los radiadores. No se deben cubrir nunca, ni situar muebles u obstáculos que dificulten la transmisión de calor (invierno).
- Berogailuaren tenperatura erregulatzeko termostatoak eta erloju programagarriak erabiltzea (negua).	- Utilizar termostatos y relojes programables para regular la temperatura de la calefacción (invierno).
- Erabili behar ez diren geletako erradiadoreak itxita edukitzea (negua).	- Mantener cerrados los radiadores de los recintos que no se ocupen (invierno).
- Ekipo elektronikoak, berokuntza, argiztapena eta aire girotua itzaltzea, gelak hutsik geratzen direnean.	- Apagar los equipos electrónicos, calefacción, iluminación y de aire acondicionado cuando las dependencias queden vacías (anual).
- Erabili ondoren txorrotak beti itxi, ur beroa xahutu gabe.	- Cerrar siempre los grifos tras su uso, no derrochando agua caliente.
- Garraio publikoa eta bizikleta erabiltzea edo oinez ibiltzea sustatuko da, ibilgailu pribatuaren aurrean.	- Se priorizará permanentemente el uso del transporte público, la bicicleta o a pie, frente a la utilización del automóvil privado.
HAMAZAZPIGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa eta ordainketa aurreratuak.	**DECIMOSÉPTIMA.- Abono de la subvención y pagos anticipados.**

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

1. Dirulaguntzaren ordainketa diru-laguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela aurrez egiaztatuta egingo da.	1. El abono de la subvención se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.
2. Aurrekoa horrela izanda ere, diruz lagundutako ekintzarengatik egiaztatzen bada, konturako ordainketak egin ahal izango dira. Konturako ordainketa horiek ordainketa zatikatuen bidez egin ahal izango dira, diruz lagundutako ekintzak gauzatzen diren erritmoaren arabera, eta aurkeztutako egiaztagiriaren zenbateko baliokide bidez ordainduko dira. Oinarri espezifikoek zehaztuko dute noiz eskatu daitezkeen ordainketa horiek, data zehatzetan edo ekintzen gauzatzearen portzentaiaren arabera.	2. No obstante lo anterior, cuando se justifique por razón de la acción subvencionada, podrán realizarse abonos a cuenta. Dichos abonos a cuenta podrán consistir en pagos fraccionados, que responderán al ritmo de ejecución de las acciones subvencionadas, abonándose por cuantía equivalente a la justificación presentada. Las bases específicas concretarán las fechas o porcentajes de ejecución en que se podrán solicitar los abonos.
3. Ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira eta berekin ekarriko dute fondoak entregatzea justifikazioaren aurretik, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa. Oinarri zehatzetan xedatuko da portzentaia. Aldez aurreko ordainketak ezingo du emango den diru-laguntzaren %80 gainditu.	3. Se podrán realizar pagos anticipados que supondrán entregas de fondos con carácter previo a la justificación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención. El porcentaje se determinará en las bases específicas. La entrega anticipada no podrá superar el 80% de la subvención que se vaya a otorgar.
Aurrekoaren kalterik gabe, salbuespenez eta oinarri espezifikoek debekatzen ez badute, dirulaguntzaren pertsona edo entitate onuradunak egoki justifikatutako eskaera egingo balu, organo eskudunak beste entrega baten aurreratzea erabaki dezake. Inoiz ezin izango da diru-laguntzaren kopuru osoa aurreratu.	Sin perjuicio de lo anterior, excepcionalmente y siempre que las bases específicas no establezcan lo contrario, tras la solicitud debidamente justificada de la entidad o persona beneficiaria de la subvención, el órgano competente podrá acordar el anticipo de otra entrega, sin que en ningún caso pueda anticiparse el importe total de la subvención.
4. Dirulaguntzaren ordainketa ezingo da egin pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean ez dituen artean edo itzulera bidezkotasuneko ebazpenez zordun denean	4. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad o persona beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad social o sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.
HEMEZORTZIGARRENA.- Dirulaguntzaren justifikazioa.	**DECIMOCTAVA- Justificación de la subvención.**
1. Diruz lagundu den jarduera amaitutakoan,	1. Finalizada la actividad para la cual se otorgó la

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

dirulaguntza lerro bakoitzean adierazitako epean, diruz lagundutako jarduerei edo programei buruzko dokumentazio zuritzailea aurkeztu beharko da.	subvención deberá ser presentada, dentro del plazo establecido en cada una de las líneas de subvención, la documentación justificativa de la realización del programa o actividad subvencionada.
2. Dirulaguntzen pertsona edo entitate onuradunak behartuta daude justifikatzera jasotako fondoak bideratu direla dirulaguntza oinarritu zuen xederako.	2. Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar el destino de los fondos percibidos a la finalidad que sirvió de fundamento a la subvención.
Justifikazioa emateko epea dirulaguntza lerro bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko da.	El plazo de rendición de la misma vendrá determinado en las bases específicas de cada una de las líneas de subvención.
Justifikazioa euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da, ondorengo baldintzak betez:	La justificación deberá redactarse en euskera o en los dos idiomas oficiales, conforme a los siguientes requisitos:
a) Onuradunak gastu (BEZ barne) eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko dirulaguntzak badira) edo jarduera osoari edo programa zehatz bati dagozkionak (dirulaguntza bat jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen bada). Erakundeen kasuan, idatzi hori sinatuko du ahalmendua izan den pertsonak, izen-abizenak eta DNI zenbakia zehaztuz.	a) La beneficiaria deberá presentar las cuentas de la totalidad de sus gastos (IVA incluido) e ingresos (en el caso de subvenciones para la realización de la actividad anual) o los correspondientes a la totalidad de una actividad o programa específico (en el caso de que se conceda una subvención para la realización de una determinada actividad o programa). Dicho documento vendrá firmado, en el caso de las entidades, por la persona apoderada para ello, identificada con nombre, apellidos y DNI.
b) Erantsiko da Diruzainak emandako egiaztagiri bat -bere izen-abizenak eta Nortasun Agiri zenbakia jasoz- (edo, pertsona fisikoa bada, erantzukizunpeko deklarazioa) aurkeztu beharko du. Bertan diruz lagundutako proiektua, jarduera edo programa finantzatzeko lortutako diru-sarrera guztien zerrenda jasoko da, bai entitate publikoetatik eta pribatuetatik datozenak, bai publikoak, oro har emandakoak edo bazkideek egindako ekarpenak.	b) Se adjuntará una certificación emitida por la Tesorera o Tesorero de la entidad (o declaración responsable, en el supuesto de persona física), haciendo constar una relación de todos los ingresos obtenidos para la financiación del proyecto, actividad o programa subvencionado, tanto sean provenientes de entidades públicas como privadas, así como del público en general o de las aportaciones de sus socias/os.
c) Onuradunak kontu horietan erantsi beharko ditu faktura eta/edo ordainketa egiaztagiri guztiak (trafiko juridikoan baliozkoak) egin diren gastuak egiaztatzeko (originalak). Klausula honen 3. atalean zehazten dira	c) La beneficiaria deberá adjuntar a las citadas cuentas, todas las facturas y/o documentos obtenidos de justificantes de pago (válidos en el tráfico jurídico) acreditativas de los gastos

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

dokumentu horien betebeharrak.	realizados (originales). En el punto 3 de esta cláusula se concretan los requisitos de dicha documentación.
d) Nolanahi ere, jarduera egin eta egiaztatzeko epea amaituta, egindako gastuen zati bat bakarrik ordaindu izan balitz, kobratzeko eskubidea galtzeko ondorioetarako, proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuko litzateke.	d) En todo caso si, realizada la actividad y finalizado el plazo para justificar, se hubiera pagado sólo una parte de los gastos en que se hubiera incurrido, a efectos de pérdida del derecho al cobro, se aplicará el principio de proporcionalidad.
3.- Jasotako fondoak aplikatu direla justifikatzeko dokumentuen aurkeztea, oro har, modu honetan egingo da:	3. La justificación documental de la aplicación de los fondos recibidos se realizará, con carácter general, del siguiente modo:
a) Dirulaguntzaren xedea obra edo instalazio bat egitea bada, justifikazio dokumentuak gaitasuna duen teknikari baten ziurtagiriak izango dira. Udalak egindako obra edo instalazioen berri emango duen udal teknikari bat izendatu ahal izango du.	a) Si el destino de la subvención es la realización de una obra o instalación, los documentos justificativos serán certificaciones de un o una Técnico competente. El Ayuntamiento podrá designar que un técnico municipal informe sobre las obras o instalaciones realizadas.
b) Xedea material suntsigarria erostea bada, zerbitzuak ematea edo antzeko beste batzuk badira, justifikazio dokumentuak originalak edo fotokopia konpultsatuak ekartzea eskatuko da.	b) Si el destino es la adquisición de material fungible, la prestación de servicios y otros de naturaleza semejante, se requerirá la aportación de documentos justificativos originales o fotocopias compulsadas.
c) Pertsona fisikoei egiten zaizkien ordainketak, lan harremanik ez dagoen kasuetan, hurrengo moduetako batean egin beharko dira:	c) Los pagos realizados a personas físicas con las que no medie relación laboral deberán revestir alguna de las siguientes modalidades:
c.1) Dietak edo gastuen konpentsazio ekonomikoak (garraioa, otarrekoak, alojamendua, besteak): “jaso dut” agirien bidez egingo dira. Gastuen egiaztagiriak erantsiko dira.	c.1) Abono de dietas o compensación económica por gastos (transporte, comida, alojamiento u otros): se realizará mediante “recibí”. Se adjuntará los documentos justificativos de los gastos.
c.2) Emandako zerbitzuengatik bestelako ordainketak: faktura edo balioa duten bestelako dokumentuekin egin beharko dira. Zerga atxikipena egingo da eta Foru Ogasunean sartu (190 agiria), pertsona fisiko bati egindako ordainketen batuketa 300 (hirurehun) euro edo handiagoa denean. Egiaztatu beharko da dirua sartu dela.	c.2) Otros abonos por la prestación de servicios: se realizarán contra factura o documento válido. Se realizará la correspondiente retención tributaria e ingreso en la Hacienda Foral (documento 190) siempre que la suma del importe de los abonos a una persona física sea igual o superior a 300 (trescientos) euros. Deberá acreditarse dicho

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

	ingreso.
d) Atxikipen eta diru-sartze hori egiaztatu beharko da, ere, emandako sariekiko, bere kopurua 300 (hirurehun) edu edo gehiagokoa denean.	d) Dicha retención e ingreso deberá acreditarse también respecto a los premios cuyo importe sea igual o superior a 300 (trescientos) euros.
e) Ordainketak banku transferentzia bidez egingo dira. Ezingo dira 2.500 (bi mila eta bostehun) euro edo gehiagoko ordainketak esku diruz egin (edo kopuru txikiagokoak, legez horrela xedatzen bada).	e) Todos los pagos deberán realizarse vía transferencia bancaria, sin que puedan realizarse pagos de importe igual o superior a 2.500 (dos mil quinientos) euros -o importe menor que se establezca legalmente- en metálico.
HEMERETZIGARRENA.- Justifikazioa konprobatzea	**DECIMONOVENA- Comprobación de la justificación**
1.- Udalak konprobatu ahalko du, egokitzat jotzen dituen baliabideen bidez, emandako diru kopuruak eman ziren xederako inbertitu zirela. Hala izan ezean, jasotako diru-kopuruak eta dagozkion berandutze-interesak itzuli egingo dira. Era berean, izan litezkeen erantzukizunak exijitu ahalko zaizkie.	1.- El Ayuntamiento podrá comprobar, por los medios que considere oportunos, que las cantidades otorgadas se han invertido en la finalidad para la que se concedieron. En caso de incumplimiento procederá al reintegro de las cantidades percibidas y los intereses de demora que correspondan, así como a la exigencia de posibles responsabilidades.
2.- Departamentu bakoitzeko teknikariak konprobatuko du diru-laguntza egoki justifikatu dela, hala nola jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo gozatzeko erabaki duen helburua bete dela. Horretarako dagokion txostena emango du, eta teknikari hori bera izango da berrikusketa bete ez izanaren arduraduna.	2.- El o la Técnico del departamento correspondiente comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención, a cuyo efecto emitirá el correspondiente informe, siendo ésta/e Técnico quien se responsabilice del incumplimiento de esta revisión.
3.- Departamentu bakoitzeko zinegotzi arduradunak txostenari oniritzia eman beharko dio.	3.- La o el Concejal responsable del departamento correspondiente, deberá dar el visto bueno al citado informe.
4.- Txostena Kontularitza, Zerga Administrazio eta Ikuskaritza departamentura bidaliko da, Kontu-hartzaileak adostasuna eman dezan.	4.- El informe se remitirá al departamento de Contabilidad, Administración e Inspección de Tributos, para que el o la Interventor dé su conformidad.

ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16

5.- Dirulaguntza eman duen organoa beharturik egongo da urtero jarduketa plan bat egitera, era horretan konproba dadin onuradunek gauzatu dituztela diruz lagundutako jarduerak.	5.- El órgano concedente de la subvención tendrá la obligación de elaborar anualmente un plan anual de actuación para comprobar la realización por las personas beneficiarias de las actividades subvencionadas.
HOGEIGARRENA.- Araubide Juridikoa	**VIGÉSIMA.- Régimen Jurídico**
Dena den, dirulaguntza deialdi honen oinarrietan aurreikusirik gabeko guztian, ondorengo hauek ezarririkoa beteko da: Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, abenduaren 17koa, eta 887/2006 Errege Dekretua, eta hura garatzeko arautegia.	En todo lo no previsto en las presentes bases generales de subvenciones, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria, en la Ley 38/2003, de 17 de diciembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 y demás normativa de desarrollo.

EKS | CSV: ESKU77ff1626-4f79-4d41-9592-7c77c58e1c16
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06710
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06710

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025SDBD0018-Dekretua/Decreto (ERRENTERIAKO UDALA)

Digitalki sinatua:

PO Aizpea Otaegi
Alkatea
Data: 2025/11/19 08:41:12